

2021eko URTARRILAREN 20ko OSOKO BILKURAKO AKTA.

Tokia: Berako Herriko Etxea.
Eguna: 2021-01-20.
Hasiera ordua: 17:30.
Bilkura mota: ohikoa, 1. deia.

BERTARATUAK:

EH BILDU

Jose Esteban Aguirre Zubieta
Maialen Chantre Irazoki

HERRIRAKO

Jose Antonio Oyarzabal Iribas
Nahuel Maximiliano Ibarburi Lompre
Raquel Quiroga Tapia

EZ EGOTE JUSTIFIKATUAK:

M. Aranzazu Zubieta Ochoteco
Estibaliz Pinacho Olaciregui
Josu Iratzoki Agirre
Julen Errandonea Martin
German Castillo Lazcanotegui

ALKATEA (Bilkurako buru):

Aitor Elexpuru Egaña

IDAZKARIA: Miguel Jose Belarra Tellechea, ekintzaren akta jasotzen du.

EZTABAIDATUTAKO GAIK (behar bezala egindako deialdiaren Gai Zerrendan sartu zirenak):

1. AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONARPENA.

Alkateak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu zen aurreko bilkurako aktari (2020/12/23). Inork ez du azalpenik egin eta **aho batez** onartzen da akta.

2. 7. POLIGONOKO 301. PARTZELAKO XEHETASUN AZTERLANA. BEHIN BETIKO ONESPENA.

Ikusirik:

- 7. poligonoko 301. partzelako xehetasun azterlana —Itzea karrika, 4—, etxebizitza-blokeko eraikinaren iparraldeko fatxadaren lerrokadurak eta bolumena aldatzeko igogailu bat jarri ahal izateko, eraikineko arkitektura-oztopoak kentzea xede. Sustatzailea da Comunidad de Propietarios Calle Itzea 4. Dokumentua José Miguel Gascón Saldaña arkitektoak idatzi zuen.

- Nasuvinsako arkitektoak, Udaleko aholkulariak, 2020ko azaroaren 6an egindako

txostena.

- Udal Idazkariak 2020ko azaroaren 12an egindako txosten juridikoa.

Kontuan izanda:

- Agiria hasiera batean onartu zela azaroaren 16ko 249/2020 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez.

- Espedientea jendaurrean jarri zela, iragarkiak argitaratuz NAOn, prentsan eta Iragarki Oholean.

- Espedientea jendaurrean egon zen epealdian ez zela alegaziorik aurkeztu.

- Sustatzaileak behin betiko onartzeko eskatutako dokumentazioa aurkeztu zuela, igogailuaren kaxaren eta eraikinean lehendik zegoen atzeraemangunearen arteko atzeraemangunea kenduz.

- Nasuvinsako arkitektoak, Udaleko aholkulariak, dokumentazio berriaren aldeko txostena egin zuela 2021eko urtarrilaren 14ko agirian.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 63., 72. eta 74. artikuluekin bat etorritz,

aho batez ERABAKITZEN DA:

1. Behin betiko onespina ematea 7. poligonoko 301. partzelako xehetasun azterlanari.

2. Behin betiko onespina hau argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

3. Erabaki hau jakinaraztea sustatzaileari.

4. Erabaki hau Nafarroako Gobernuko Lurralde Antolamendu, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuari helaraztea, onartutako agiriarekin eta emandako txosten teknikoekin batera, gehienez ere 10 eguneko epean.

3. BERAN ANIMALIAK EDUKI ETA BABESTEARI BURUZKO UDAL ORDENANTZA. HASIERAKO ONESPENA.

Ikusirik:

- Beran animaliak eduki eta babesteari buruzko udal Ordenantzaren onespina espedientea.

- Idazkariak 2020ko urriaren 2an egindako txostena.

- Egin direla Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeko 133. artikulua arautzen dituen aurretiko kontsulta publikoa eta entzunaldia.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 325. eta 326. artikuluek xedatzen dutenarekin bat eginik,

aho batez ERABAKITZEN DA:

1. Hasiera batez onestea Beran animaliak eduki eta babesteari buruzko udal Ordenantza.

2. Espedientea jendaurrean jartzea 30 egunez, aldez aurretik Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki oholean iragarkia jarrita, herritarrek eta bidezko interesa dutenek hura aztertu eta erreklamazioak, eragozpenak eta oharra egin ahal ditzaten.

3. Ohartaraztea ez bada erreklamazio, kexa edo oharrik aurkezten, hasierako onespén hau behin betikoa bilakatuko dela eta Ordenantzaren testua NAOn argitaratuko dela.

4. MOZIOA: BORTZIRIETAKO OSASUN ETXEEN EGOERA.

Alkateak Lesakako osasun zentroko Lehen Mailako Arretako Taldeak jakitera eman duen lan-prekarietateko egoera azaldu du. Departamentuak ez ditu hainbat lanpostu bete: mediku lanpostu bat Lesakan; mediku lanpostu bat Landa Eremuko Larrialdi Taldean; pediatria lanpostu bat Beran, lanaldiaren %40an; administrari lanpostu bat Beran; administrari lanpostu bat Arantzan, %50ean (eta larunbat goizetan); mediku errehabilitatzailea Lesakako kontsultarako, 2020ko otsaila geroztik bete gabe dagoena.

Gaia eztabaidatu ondoren, **aho batez ERABAKITZEN DA:**

1. Berako Udalaren babesa erakustea Lesakako osasun zentroko Lehen Mailako Arretako Taldearen aldarrikapenei.

2. Akordio hau helaraztea Lehen Mailako Arretako Taldeari eta Lesakako Udalari.

5. BANDOAK ETA ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Honako bando eta Alkatezaren ebazpen hauen jakinaren gainean geratu dira:

- Bandoak: B1/2021 zenbakia.

- Ebazpenak: 273/2020 zenbakiko Ebazpenetik (2020/12/21) 288/2020 zenbakiko Ebazpenera arte (2020/12/31).

6. ESKAERAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEEN KONTROLA.

Ez dira izan.

Beste aztergairik izan gabe, 18:00ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

O.E. ALKATEA,
Aitor Elexpuru Egaña.

IDAZKARIA,
Miguel J. Belarra Tellechea.